

AMETX, ZORNOTZAKO KULTURA ETA EUSKARA ZERBITZUETARAKO HERRI ERAKUNDEKO LANPOSTUEN ZERRENDAKO BI PLAZA, LEHIAKETA-OPOSAKETA SISTEMA ERABILITA, KARRERAKO FUNTZIONARIOEZ HORNITZEKO HAUTAKETA-PROBEN DEIALDIAREN **OINARRI OROKORRAK**

**Lehenengoa.—Deialdiaren helburua**

1. AMETX, Amorebieta-Etxanoko Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Herri Erakundearen Artezkaritza Batzordeak 2008ko abenduaren 3an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez onartu ziren Lan Eskaintza Publikoarekin bat etorrira, ondorengo lanpostuak karrerako funtzionarioez hornitzeko hautaketa-proben deialdia da Oinarri hauen xedea:

- Administrari lanpostu bat jabetzan betetzea, txanda irekian eta lehiaketa-oposizioaren bidez, euskarazko derrigorrezko III. hizkuntza eskakizunarekin; Administrazio Orokorreko eskalakoa, Administrazioaren Azpi-eskala, C ordainsari-taldea, 19. mailari dagokiona.
- Administrari laguntzaile lanpostu bat (Erregistroa) jabetzan betetzea, txanda irekian eta lehiaketa-oposizioaren bidez, euskarazko derrigorrezko III. hizkuntza eskakizunarekin; Administrazio Orokorreko eskalakoa, Administrazioaren Azpi-eskala, D ordainsari-taldea, 16. mailari dagokiona..

2. Edonola ere, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazak izanik, ezin izango du bete hizkuntza eskakizun hori duela aurreikusitako eran egiaztatzen ez duen inork.

3. Epaimahaiak ezin izango du adierazi deitutako plaza kopurua baino lehiatzaile gehiagok gainditu duela hautaketa prozesua. Baldintza hori urratzen duen edozein proposamen erabat baliogabea izango da.

4. Era berean, konpromisoa adieraziko da sexuen arteko aukera berdintasunerako abiaburuarekin; izan ere, Ametx, Zornotzako Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Herri Erakundeak langileak kontratatzeko erabiltzen duen prozedurak bat egiten du abiaburu horrekin.

5. Deitutako lanpostu kopurua handitua izan daiteke hautaketa prozesua amaitu aurretik sortzen diren lanpostu hutsak gehituta.

**Bigarrena.—Lehiatzaileen betekizunak**

1.- Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Europar Batasuneko hiritarra izatea, bera edo beraren ezkontidea, baldin eta zuzenbidez banandurik ez badaude, edo 21 urtetik beherako seme-alabak edo, adin hori baino gehiagokoak izanik ere, beraren kontura bizi diren seme-alabak, Europar Batasuneko kide diren gainerako nazioetako ei funtzio publikoaren sektore jakinetarako sarbidea arautzen dien abenduaren 23ko 17/1993 Legearen 1.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Hamasei (16) urte beteta izatea eta derrigorrezko erretiroa hartu ahal izateko adinera heldu gabe egotea.

c) Lana ondo betetzea eragotziko duen gaixotasunik edo akats fisiko ez psikologikorik ez izatea, minusbaliatuen integrazioari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 legearen erabilera baztertu gabe.

d) Zigor-espedientearen bidez Herri Administrazioetako ezeinetatik baztertua ez izana, eta egiteko publikoak betetzeko gaitasunaz gabetuta ez egotea.

e) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikuluan exijitutakoaren arabera, Deialdiaren Oinarri Berariazkoetan adierazita dagoen titulu akademikoa edukitzea edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

f) Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko indarreko araudian aurreikusita dagoenari jarraiki, ezigaitasunaren edo bateraezintasunaren ezein egoeratan ez egotea.

2.- Deialdian parte hartzeko eskatutako betekizun guztiek eskabideak aurkezteko azken egunean beteak izan behar dute. Era berean, denak bete beharko dira, hautaketa prozedura hasten denetik eta lanpostua eman bitartean.

### **Hirugarrena.—Eskabideak aurkeztea eta onartzea**

1. Era:

Eredu ofiziala eta normalizatuari egokituko zaizkio eskaera-orriak. Ametx erakunde autonomoan (Zelaieta Zentroa, Zelaieta parkea z/g) dohainik eta [www.ametx.net](http://www.ametx.net) web orrian ere eskuragarri dago.

Onartuak izateko eta hautaketa probetan parte hartzeko, izangaiek eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, baldintza horretarako epemuga eskaera-orriak aurkezteko azken eguna izanik. Honakoak aurkeztu beharko dira ezinbestean eskabide-orriarekin batera:

a) Nortasun Agiriaren fotokopia.

b) Eskatzaileek alegatutako merezimenduen adierazpena gehituko diote eskabideari, merezimenduen egiaztatze agiriekin batera. Horretarako, jatorrizko dokumentuak aurkeztu ahalko dira, edo behar bezala erkaturiko kopiak. Ez da baloratuko eskabideak aurkezteko epean alegatu eta justifikatu ez den merezimendurik, ezta epe barruan alegatu arren, epea igarota justifikatu den merezimendurik.

Lehiaketa-fasearen merituen egiaztapena:

- Zerbitzugintzan jardun izan deneko Administrazioaren ziurtagirien bidez egiaztatuko da esperientzia, kontratuaren iraupena eta betetako lanpostua zehazturik, eta deialdiaren lanpostuak dituen funtzioen arabera balioetsiko da.

Eskabide-orriak aurkezteko epemugaren aurreko epealdiak baino ez dira kontatuko.

- Sektore pribatuan emandako zerbitzugintza egiaztatzeko, dagokion enpresaren ziurtagiria aurkeztuko da, Gizarte Segurantzaren emandako lan-bizitzaren agiria aurkeztuta.
- Ikastaroak egiaztatzeko, ikastarook eman dituen erakunde ofizialaren ziurtagiriak aurkeztuko dira, edo lortutako tituluak. Prestakuntza osagarriari dagokion meritua egiaztatzeko dokumentazioan, berriz, prestakuntza horren iraupena zehaztu beharko da.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan zehaztutako hizkuntza-gaitasun mailak (A1, A2, B1, B2, C1 eta C2) eta hauen baliokidetzak kontuan hartuko dira hizkuntzen ezagutza egiaztatzeko: 1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa (2007ko urtarrilaren 4ko EBO); 64/2005 Dekretua (2008ko apirilaren 15eko EHAA).

c) Deialdiaren Oinarri Berariazkoetan exijitzen den titulua edo titulua eskuratzeko ordaindutako eskubideak.

d) Hala denean, eskatutako hizkuntza eskakizunaren jabetza egiaztatzen duen agiriaren jatorrizko dokumentua edo kopia konpulsatua.

2. Eskabide-orriak aurkezteko lekua:

Eskabideak Ametx erakundearen Ametx erakunde autonomoaren Erregistroan aurkeztuko dira, (Zelaieta Zentroa, Zelaieta parkea z/g 48340 Amorebieta-Etxano).

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

3. Eskabideak aurkezteko epea:

Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean zenbatzen hasi eta egutegiko hogeit eguneko.

4. Eskabideen akatsen zuzenketa:

30/1992 Legearen 71. artikuluan adierazitakoarekin bat etorrira, eskabideetan akatsak badaude, interesdunari deituko zaio, 10 egunen barruan akatsa konpon dezan. Horrela egin ezean, eskaria bertan behera utzitzat hartuko da, eta beste tramiterik egin gabe artxibatuko.

#### **Laugarrena.- Izangaien onarpena**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ametx erakunde autonomoaren presidentziak onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda onartuko du. Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Ametx erakunde autonomoaren iragarki oholean eta web orrian egongo da ikusgai. Lehenengo ariketari dagokion lekua, eguna eta hasiera-ordua, eta Epaimahai Kalifikatzailearen kide titularrak eta ordezkioak adieraziko dira ebazpen horretan.

Hautaketa probatik baztertuta geratu diren izangaiek 10 laneguneko epea izango dute, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean zenbatzen hasita, kanpoan geratu izana ekarri duten akatsak edo omisioak konpontzeko.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin-betiko bilakatuko da automatikoki. Erreklamaziorik izatera, ordea, onetsi edo ezetsi egingo dira, aurrekoaren modu berean argitaratuko den eta behin-betiko zerrenda onetsiko duen beste ebazpen batean.

Berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, presidenteari zuzenduta, ebazpen horren aurka, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunean zenbatzen hasi eta hilabeteko epean.

Behin-behineko zerrendatik kanpo geratu eta epe barruan zerrendon aurkako erreklamazioa aurkeztu duten izangaiek probak egin ahalko dituzte era kautelazkoan, baldin eta probak hasten direnerako, aurkeztutako erreklamazioaren gaineko ebazpenik eman ez bada. Era berean, behin-betiko zerrendatik kanpo geratu diren pertsonak ere probak egin ahalko dituzte kautelazko eran, baldin eta kanpo geratu izanaren aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela egiaztatzerik badute eta probei ekiten zaienerako errekurtsoaren gaineko ebazpenik ez bada.

#### **Bosgarrena.—Epaimahai kalifikatzailearen osaera, eraketa eta jarduketa**

1. Osaera:

Epaimahai kalifikatzaileek gutxienez bost epaimahaikide izango dute, idazkariak gain. Denek izango dute deialdia parte hartzeko eskatzen den titulazio akademikoaren adinako titulazioa edo goragokoa.

Espezialitatearen printzipioa betetzea zainduko da: epaimahaikideen erdiek gutxienez, lanpostuari eusteko eskatzen den ezagutza-alorreko titulazioa edukiko dute.

Presidenteak izendatuko ditu epaimahaikide titularrak eta ordezkioak, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Ametx erakunde autonomoaren iragarki oholean eta web orrian argitaratuko da izendapena.

Epaimahaikideetako bat Herri Administrazioarako Euskal Erakundeak (IVAP) proposatua izango da eta beste bat, berriz, langileen ordezkariak proposatua, kontuan hartuta pertsonal hautatua ezin izan daitekeela hautaketa organoetako kide eta, hautaketa organoetako kideek banakako gisa jardungo dutela, inoren ordezkari edo inoren kontura jardun gabe.

Nolanahi ere den, aholkulari adituen laguntza erabil dezake Epaimahaiak komenigarri irizten dion guztirako.

Euskara-ezaguera baloratzeko, beste epaimahaikide bat ere izango da HAEK proposatua, Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 99.2 artikuluan ezarrita dagoenari jarraiki.

2. Abstentzioa:

Epaimahaikideek ez dute esku hartuko 30/92 Legearen 28. artikuluan aurreikusita dauden inguruabarretako bat gertatzen denean, eta hala jakinaraziko diote presidenteari.

### 3. Ezespena:

Izangaiek epaimahaikideak ezetsi ahalko dituzte 30/92 Legearen 29. artikuluan aurreikusita dauden inguruabarretako bat gertatzen denean.

### 4.- Eraketa:

Presidentea eta idazkaria edo berorien ordezkioak, eta kide titularren edo ordezkioen erdiak bertaratu ezean, Epaimahaia ezingo da eratu, ez eta jardun ere. Idazkari diharduena ez da kontuan hartuko zenbaketa egitean.

Organo kolegiatuaren kideetakoren batek, ez dagoelako, edo gaixorik dagoelako, edo, orokorrean, justifikatutako zergati bategatik, bertaratzerik ez badauka, ordezkioa bertaratuko da. Presidenteak, ez dagoelako, edo gaixorik dagoelako edo, orokorrean, justifikatutako zergati bategatik, bertaratzerik ez badauka, beraren ordezkioak jardungo du egiteko horietan eta, halakorik ezean, hierarkia, antzinakotasun edo adin altueneko epaimahaikideak ordezkiatuko du, irizpide-ordena horren arabera. Idazkariak, ez dagoelako, edo gaixorik dagoelako edo, orokorrean, justifikatutako zergati bategatik, bertaratzerik ez badauka, beraren ordezkioak jardungo du egiteko horietan eta, halakorik ezean, idazkariak erabakitzen duenak.

### 5.- Jarduketa:

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 22.etik 27.era bitarteko artikuluetan zehaztuta dauden arauak egokituko dio jarduketa Epaimahaiak. Epaimahaikide guztiek izango dute hitzerako eta botoa emateko eskubidea, idazkariak izan ezik. Azken horrek hitza edukiko du, baina botorik ez.

Bertaratutako botoen gehiengoaz hartuko ditu erabakiak epaimahaiak. Berdinketa gertatuz gero, presidente diharduenak ebatziko du.

Jakinazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Ametx erakunde autonomoaren bulegoetan izango du egoitza epaimahaiak, Zelaieta Zentroa, Zelaieta parkea z/g, 48340 Amorebieta-Etxano.

Epaimahaiak eskumena izango du azaltzen diren zalantzak ebazteko eta deialdia behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez.

### **Seigarrena.—Hautaketa prozedura**

1. Txanda irekiko lehiaketa-oposaketa izango da izangaia hautatzeko prozedura, deialdiaren oinarri berezietan ezarrita dagoenaren arabera. Praktika-aldia edo prestakuntza-ikastaroa gainditzeko baldintza ezarri ahalko da hautaketa-prozesuan, oinarri berezietan horrela ezarrita badago.

2. Deialdiaren Oinarri Berezietan adierazita datozen ariketek osatuko dute oposizio-fasea. Ariketon nolakotasuna eta balorazioa zehaztuta dagoenaren arabera izango dira.

Proba bakoitzean balioetsiko du epaimahaiak zein den oposiziogileen anonimatua eta konfidentzialtasuna bermatzeko biderik egokiena, eta metodo hori erabiltzeko neurriak hartuko ditu, hala proba egiteko nola proba zuzentzean.

3. Lehiaketa fasean izangaiek alegatu eta egiaztatzen dituzten meritu guztiak aztertu eta balioetsiko dira, deialdiaren baremoen arabera bakoitzari dagozkion puntuak esleituz. Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunera bitartean eskuratuta dauden merituak baino ezingo dira kontuan hartu.

4. Lehiaketa faseak ez du baztertzeko indarrik izango eta ezin izango da kontuan hartu oposizio bidezko lehiaketa gainditzeko.

### **Zazpigarrena.—Hautaketa prozesuaren hasiera eta garapena**

1. Oposizio faseko lehenengo azterketa zein egunetan, zer ordutan eta non egingo den Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Ametxeko iragarki oholean eta web orrian argitaratuko da, onartu eta baztertu direnen zerrenda ontzat ematen duen erabakiarekin batera.

2. Gainerako azterketei dagozkien iragarkiak Ametxen iragarki oholean eta web orrian argitaratuko dira.

3. Ariketak egiteko deialdi bakarra egingo zaie izangaiei. Ariketara agertzen ez direnak hautapen prozesutik kanpo geratuko dira, ariketara ez agertzea behar den bezala egiaztatu badute eta epaimahaiak askatasun osoz, arrazoi horiek ontzat eman dituenen izan ezik.

#### **Zortzigarrena.—Hautaketa prozesuaren kalifikazioa**

1. Oposizio fasea: Deialdiaren Oinarri Bereziatan ezarrita dagoenaren arabera kalifikatuko dira oposizio faseko ariketak.

2. Lehiaketa fasea: Deialdiaren meritu berezien baremoaren arabera esleitzen diren puntuak zehaztuko dute merituen balorazioa.

3. Oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortzen diren puntuak batuketa egingo da azken kalifikaziorako.

4. Puntuak batuketa eginda berdinketa gertatuz gero, oposizio fasean puntu gehien lortzen duena izango da lehenengoa.

#### **Bederatzigarrena.—Onartuen zerrenda.**

1. Oposizio fasearen ariketa bakoitza zuzendutakoan, ariketan lortutako kalifikazioak argitaratuko ditu Epaimahaiak Ametxen iragarki oholean eta web orrian.

2. Oposizioaren azken ariketa amaitu ondoren, gainditzen dutenen behin-betiko zerrendak argitaratuko ditu Epaimahaiak, puntuaketaaren arabeko ordenan. Oposizio-faseko ariketen eta lehiaketa-faseari dagokion kalifikazioak agertaraziko dira bertara, eta guztirako batura. Eskumena daukan organoari helaraziko zaizkio kalifikazio horiek, karrerako funtzionarioaren izendapenerako proposamena ginez.

#### **Hamargarrena.—Dokumentuak aurkeztea.**

1. Honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

Proposatzen den izangaiak deialdi honetan eskatzen den gaitasuna daukatela eta betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dituzte eta, hain zuzen ere, ondorengo hauek:

a) Erregistro Zibilak emandako Jaiotza Ziurtagiria. Horren orde, familia liburua ere aurkeztu ahalko da.

b) Lanpostuari dagozkion funtzioak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasun edo akats fisiko ez psikikorik ez duela dioten ziurtagiri medikua, dagokien Zerbitzu Medikuek emandakoa, minusbaliatuen integratzearako apirilaren 7ko 13/1982 Legearen erabileraren kalterik gabe. Euren minusbaliotasun-egoera eta lanpostuak bere dituen funtzioak betetzeko gaitasuna egiaztatzen dituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute minusbaliatuek, eskumena duen organoak eginda.

c) Kargu publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi ez dutela eta diziplina-espeditentearen bitartez Herri Administrazioaren bateko zerbitzutik kendu ez dutela, eta Herri Administrazioetako langileen bateraezintasunari buruz indarrean dagoen abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuan ezarritako bateraezintasun ezein egoeratan ez dagoela dioten aitorpena.

2. Agiriak aurkezteko lekua eta epea:

Ametx erakunde autonomoko pertsonal-arlorra helaraziko dira dokumentuak, Zelaieta Zentroa, Zelaieta parkea z/g 48340 Amorebieta-Etxano, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen den egunean zenbatzen hasi eta egutegiko 20 egunen epean.

3. Dokumentuak ez aurkeztea:

Epe horren barruan, eta ezinbesteko kasuak alde batera utzita, dokumentazioa aurkeztu ez edo, dokumentazioa aztertutakoan, 2. oinarrian zehaztuta dauden betekizun guztiak betetzen ez dituela ondorioztatuz gero, ezingo da izangaia izendatu, eta jarduketa guztiak baliogabetuko dira, eskabide-orriko

faltsutasunaren zioz egoki dakioken erantzukizuna ere badelarik. Horrelakoetan, puntuaketa-ordena aintzat hartuta, balio gabetzearen ondorioz eta deitutako lanpostu-kopuruaren arabera, lanpostuari hel diezaiokeenaren izendapena proposatuko du epaimahaiak.

**Hamaikagarrena.—Izendapena.**

1. Organo eskumenduna.

Ametx erakunde autonomoaren presidenteak izendatuko du funtzionario Epaimahaiak proposatzen duen izangaia.

2. Jakinarazpena eta argitalpena.

Interesdunari jakinaraziko zaio izendapena, eta Bizkaiko Aldizkari ofizialean eta Ametxen iragarki oholean eta web orrian argitaratuko da.

**Hamabigarrena.— Lanpostuaz jabetzea**

1. Betekizunak:

Lanpostuaz jabetzeko diligentzian, ohiko puntuez gain, Estatuko Administrazioaren, Gizarte Segurantzaren eta mendeko Erakunde, Organismo eta Enpresen zerbitzurako langileen bateraezintasunei buruzko 598/1985 Errege Dekretuaren 13. artikuluan exijitzen diren adierazpenak ere agerrarazi beharko dira.

2. Epea:

Izendapena jakinarazitakoan, izendatutako oposizioegilea karguaz jabetu beharko da, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan eskatutako betekizunak bete, izendapena jakinarazten den egunean zenbatzen hasi eta hamabost (15) lanegunen barruan.

3. Lanpostuaz ez jabetzea:

Oinarri honen 2. puntuan ezarrita dagoen epearen barruan edo, hala izatera, emandako luzapenaren barruan, arrazoituriko zergatirik gabe, lanpostuaz jabetu ezean, karguari uko egindakotzat hartuko da izangaia.

## AZKEN ARAUAK

1. Oinarri hauetan Aurreikusita ez dagoen guztirako, honakoak hartuko dira aintzak hautaketa-proba hauek egitean: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa eraldatzeko neurriei buruzkoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunari buruzkoa; 3/2007 Legea, martxoaren 22koa gizonen eta emakumeen egiazko berdintasuna lortzeko; 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Herri-Administrazioetako Langileen Oinarrizko Estatutuarena; Estatuko Administrazio orokorrerako zerbitzuko langile izateko eta Estatuko Administrazio orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak hornitzeko eta sustapen profesionalerako Araudi Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartua; tokiko araubidean indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuak onartua; Tokiko Administrazioetako funtzionarioak hautatzeko prozeduraren Oinarrizko Arauei eta gutxieneko programei buruzko ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.

2. Hala deialdia, oinarriak nola deialdiak eta epaimahaiaren jarduketak eratortzen dituzten egintza guztiak aurkaratu ahalko dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legeak ezarritako kasuetan eta eran.